

# Gudea ta agindu-nai laŕegia

Mussolini k. Italia'ko ekonomi-jokererari buruz Langile-kidekatu-Batzen batzarean egin daben itzaŕdia, begien aŕtean dogu.

Latefi baruko bearizanak laterian oruitzearen alde agertu da. Enderaz "autarquía económica" esaten yakon latefi-ekonomi burujabetasuna goratu dau. Ekonomi-jokera ori bake-bide etsi dan.

Italia'n dabezan bearizanak, Italia'n egiten dabenz ornidu ta Italia'ko ekonomi guztia bearizanok eskatzen dabenez zuzentzei, egiz bake-bide al da?

Egunotan gai oretxeri buruz beste itzaldi mardul bat, be, irakurteko zoria izan dogu. Londres'ko Bakaldefi-Batza'ren batzarean King, Kanada'ko ordezkarriak egina: Roosevelt'en irakatsiei orpoz-orpo jaŕaituaz egina zan itzaldoioi.

Latefiak alkaren akatsak alkafi ornidu beaŕa dabela; akatsok ornidu dagioezan alkari, laterion arteko salerosketa iurdartu ta sendotu beaŕa dala azaldu eban. King'eri salerosketea indartzea, latefi bakoitzak bere bearizanak latefiko sailetan ornitzea baino sbe deritxo.

Guk, adibidez, burdinatan emen beaŕ dogun baino geiago dogu. Azurkatan edo luŕ-sagafetan geuretzako adiňa ez dogu emen eta emen azurkea edo luŕ-sagaŕa artzea asko kosta egingo leuskigu ta gure ekonomiarentzat burdinsea eruan eta ofen ordez beaŕ doguna elkartea oba dogu. Ori egiňaz geure buruei bakaŕik ez dautsegue on egiten, gizarte osoari, be, bai.

Ekonomi-jokera ori (Mussolini k. azaldutakoa) guda amesez ta guda -smoz bizi- diran eta agindu-nai laŕegidunen jokera dogu. Ori ez da bakebirde. Zearka bederen Mussolini k. berberak azaltzen dau jokera ofen bidetxortu nai dabena: gudearen bildufez autu dau jokera ori.

Gudarik sortu balita ekonomi-guda lokaŕiz itoko leuken kezkea dau bere kolkoan. Latefi aberats edo onto orniduren erpekadearen bilduŕak eta egindu nai laŕegiak autu eragin dautso jokera ori.

Ora ekonomi-jokera ofen elburua zein dan: gudea ta agindu-nai geiegia.

Jaungoikoak ogasu nguztiak latefi guztien artean banandu dauz: latefi bakoitzari ogasun bereziak emon dautsoz ta ogasun-mueta guztiz orniduta dagon laterritik ez dago. Latefiok alkafen bearizanez bederen alkartuta bizi eitezan, alkafi bearizan lokaŕiz lotu ebizan jaungoikoak.

Gizakiak bere ogasunak buruak emoten dautsonez edo gizarteari kaltegarri yakkonez erabilteko eskubiderik ez dabenez, latefiak, be, bakoitzaren ogasun bereziak eta euron ekonomi-jokera latefi guztioz edo gizartearen onerako danez zuzendu beaŕa dabe; ogasun oreik latefi bakoitzaren onez gainera gizadiaren onerako dira. Ora ogasunen egingo bikoitza.

Ekonomi sailtan latefi bakoitzak bere buruaren onari bakaŕik begiratze ofetatik gudea yatorku. Latefiak alkaren kezkaz ta alkafen iñartziz zein baino zein gorago igor asten dira, alkafi bearizan lokaŕiz lotuta ez dagozanean.

"Ekonomi bearizanez alkafi lotuta dagozan eta alkafen laguntza beaŕa daben latefiak, itunben onurako ta batza berezien bidez, zuzentzak eskatzen daben jaŕintza jatofez alkafi laguntzea on litzake..." diño XI Pi'k, "Q. Anno".

Baiňa orain laterion artean "ituŕi batetik sortzen diran jokera bi doguz; bata, ekonomi nagusikeri edo abeŕi-ekonomi jokera; bestea, danera edatzen dan domukeri gaiztesgarria, onto bizi daiken tokia abeŕi daben domukeria", diño goian aldatutako idatzian XI Pi'k.